



TOLOSAKO
UDALA

GOBERNU BATZARRA

2018.07.09

Alkatea:	Tolosako Udaletxean, bi mila eta hemezortziko uztailearen bederatzian, 8:00etan, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Mahaiburua alkatea izan da, eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai-zerrenda aztertzeko.
Olatz Peon Ormazabal	
Zinegotziak:	
Patxi Amantegi Zubiria	
Nerea Letamendia Belloso	
Jokin Azkue Arrastoa	
Iñigo Alonso Sarasibar	
Idazkaria:	
Begoña Garmendia Vazquez	
Behin-behineko Kontuhartzailea:	
Paulino Alonso Eraso	
	1. Aurreko akta onartzea.
	2 Onartzea Tolosako Inmakulada Ikastetxea, S. Coop-ri diru-laguntza ematea.
	3. Onartzea Tolosako Berazubiko biribilgunearen eta Suhiltzaileen Parkearen artean irisgarritasuna hobetzeko proiektuaren separatako (2. eta 3. faseak) obren 4. ziuertagiri-likidazioa (FV18/066 faktura).
	4. 35/2018 eta 36/2018 faktura-zerrendak.

1. AURREKO AKTA ONARTZEA.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2018ko uztailearen 2an egindako batzarraren akta aztertu dute. Batzarkideek aho batez onartu dute akta.

2 ONARTZEA TOLOSAKO INMAKULADA IKASTETXEA, S. COOP-RI DIRU-LAGUNTZA EMATEA.

I. Aurrekariak:

2015ean egin zen, lehenengo aldiz Tolosaldeko Lanbide Heziketaren topaketa. Orduan Tolosaldeko heziketa zentroek ireki zituzten beraien ateak, eta interesatuek instalazioak ikusteko aukera izan zuten.



TOLOSAKO
UDALA

2016ean helburu berdinarekin topaketa horrek Azoka forma hartu zuen. Egun bateko ekintza izan zen eta honen arrakasta ikusirik, antolatzaileek hurrengo urterako 2 eguneko iraupena izatea proposatu zuten.

2017ko abenduaren 27ko osoko bilkuran, Tolosako Udalak diru-laguntzen ordenantza orokorra onartu zuen, 2018ko aurrekontua eta honekin batera, 100.481.01.430.00 partidari Inmalukada Lanbide Ikastolari 5.000 euroko diru-laguntza izenduna emateko akordioa.

2018ko martxoaren 27an Tolosako Udalaren eta Inmakulada Ikastetxearen artean lankidetzaren hitzarmena sinatu zen.

2018ko apirilaren 20. eta 21. egunetan, III. Lanbide Heziketaren azoka ospatu zen.

2018ko ekainaren 11an, Inmakulada Ikastolak aurkeztu ditu memoria eta kontu zuriketa.

II. Azoka honen helburuak, hauek dira, - IKASENPRESA esperientziak azaldu (ikasleei eta biztanlegoari), Ikasle ohien esperientziak, ibilbide eta iritziak zuzenean eman eta jaso. Emakumeen presentzia ziurtatu (batipat ziklo industrialetan...), enpresak eta erakundeak gonbidatu beraien iritziak jasotzeko.
Bete dira.

III. Aurreikusitako ekintzak, hauek dira: martxoak 20, Mahai Ingurua, - apirilak 20: Tolosaldeko ikastetxeetako DBH eta Batxilergo-ko ikasleei zuzendutako bisita gidatua, Lanbide Heziketari buruzko informazioa emateko, eta - apirilak 21: AZOKA (Triangulon).
Gauzatu dira.

IV. Diru-laguntza jaso dituzten gastuak, hauek dira: komunikazio gastuak, musika zerbitzua eta azpiegitura gastuak, onarturik zeuden sinatutako hitzarmenean.

V. 2018ko ekainaren 11an aurkeztutako memorian, diru-laguntza ematean ezarritako baldintzak betetzen dira: egindako jarduerak eta gastuen sailkapena azalduz.

VI. Inmakulada Ikastolak, Heziketa Azokaren berri ematerakoan, bai komunikazio hedabideetan, bai osatutako materialetan, Tolosako udalaren irudi instituzionala sartu du.

VII. Euskararen erabilpenari dagokionez, Inmakulada Ikastolak, bai ahozko informazioan bai idatzizkoan, bete du Udal ordenantzan xedaturikoa.

VIII. Genero berdintasunari dagokionez, Inmakulada Ikastolak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 legean edota Emakumeen eta Gizonen berdintasun efektiboari buruzko martxoaren 22ko Lege Organikoan xedatutako obligazioak, betetzen ditu.

Era berean, 2018ko ekainaren 11an Inmakulada Lanbide Ikastolak, 4793 zenbakidun sarrera-erregistroa duen eskaera egin zuen; bertan, Tolosako Lanbide Heziketa FERIA gauzatzeko diru-laguntza eskatzen zuen eta Tolosako Udaleko Diru-Laguntzen Ordenantza Orokorraren 18. eta 31. artikuluetan xedaturikoa betetzen du.



Aurreko guztia kontuan izanik eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Lanbide Heziketako Azokaren garapenean gertatu diren gastuetan laguntzeko, bost mila euroko (5.000,00 €) diru-laguntza ematea Tolosako Inmalulada Ikastetxea, S. Coop-ri, 2018ko Udal Aurrekontuetako 1100.481.01.430.00 partidaren kargura.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta Ekonomiaren Sustapenerako Departamentuari.

3. ONARTZEA TOLOSAKO BERAZUBIKO BIRIBILGUNEAREN ETA SUHILTZAIILEEN PARKEAREN ARTEAN IRISGARRITASUNA HOBETZEKO PROIEKTUAREN SEPARATAKO (2. ETA 3. FASEAK) OBREN 4. ZIURTAGIRI-LIKIDAZIOA (FV18/066 FAKTURA).

Tolosako Udalak Construcciones Otegui-Gaztañaga SL enpresari esleitu zion Berazubiko biribilgunea eta suhiltzaileen artean irisgarritasuna hobetzeko proiektuaren separatan (2. eta 3. faseak) jasotako obren kontratua, 113.409,61 € (BEZ barne) izan zelarik esleipenaren zenbatekoa.

Orain arte aurkeztu diren ziurtagiriak honakoak dira, ondorengoak direlarik zenbatekoak:

Ziurtagiri zenbakia.....Faktura zenbakia.....Zenbatekoa

1. ziurtagiria (%21ko BEZa).....	FV18/0024.....	27.580,53 €
1. ziurtagiria (BEZik gabe).....	-----	0 €
2. ziurtagiria (%21ko BEZa).....	FV18/0039.....	21.215,12 €
2. ziurtagiria (BEZik gabe).....	-----	0 €
3. ziurtagiria (%21ko BEZa).....	FV18/0061.....	35.507,69 €
3. ziurtagiria (BEZik gabe).....	FV18/0062.....	9.658,66 €

GUZTIRA.....93.962,00 €



TOLOSAKO
UDALA

Orain aurkezturiko ziurtagiria, obrako laugarrena da eta, aldi berean likidazioa:

Ziurtagiri zenbakia.....Faktura zenbakia.....Zenbatekoa

4. ziurtagiri-likidazioa (%21ko BEZa).....FV18/0066.....27.306,52 €

4. ziurtagiri-likidazioa (BEZik gabe).....-----.....0 €

GUZTIRA.....27.306,52 €

Azken ziurtagiri hau kontuan izanda, obraren egoera ekonomikoa ondoren jasotzen den moduan geratzen da:

OBRAK					
ADJUDIKAZIOA (BEZKANPO)					95.269,80
ZENBAKIA	FAKTURA ZB	OINARRIA		GUZTIRA	PORTZENTAIA
		OINARRIA	BEZ		
1	FV18/0024	22.793,83	4.786,70	27.580,53	%23,93
	-----	0,00	0,00	0,00	%0,00
2	FV18/0039	17.533,16	3.681,96	21.215,12	%18,40
	-----	0,00	0,00	0,00	%0,00
3	FV18/0061	29.345,20	6.162,49	35.507,69	%30,80
	FV18/0062	9.658,66	0,00	9.658,66	%10,14
4-LIKIDAZIOA	FV18/0066	22.567,38	4.739,15	27.306,53	%23,69
	-----	0,00	0,00	0,00	%0,00
GUZTIRA		101.898,23	19.370,30	121.268,53	%106,96

Ikus daitekeenez, adjudikazioarekiko hazkunde bat izan da likidazioko azken kopuruan, % 6,96koa hain zuzen ere.

Aldaketa horiek neurketen igoera baten ondorioa dira, obra-zuzendaritzaren txostenean jasotzen den moduan.

Kopuru horietan BEZ-ik gabeko kontzeptuak Ur Zerbitzuak enpresari dagozkio. Laburpen modura, ondorengoak dira Ur Zerbitzuak enpresak obra honetan finantzatu behar dituen kopuruak:



TOLOSAKO
UDALA

GIPUZKOAKO URAK

- 1. ziurtagiria.....0 €
- 2. ziurtagiria.....0 €
- 3. ziurtagiria.....9.658,66 €
- 4. ziurtagiri-likidazioa.....0 €
- **GUZTIRA**.....9.658,66 €

Ziurtagiria aztertu eta gero, ondorengo kontzeptuak **ontzat** ematen dira:

- Obrako likidazioa.....121.268,53 €
- 4. ziurtagiria.....27.306,52 €

Aurrekoa ikusirik eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.-Onartzea Berazubiko biribilgunea eta suhiltzailetakoen artean irisgarritasuna hobetzeko 2. eta 3., faseko obraren 4. Ziurtagiria. Zenbatekoa 27.308,52 €-koa.

BIGARRENA.- Onartzea Berazubiko biribilgunea eta suhiltzailetakoen artean irisgarritasuna hobetzeko 2. eta 3., faseko obraren likidazioa 121.268,53 €-koa.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea esleipendunari, Construcciones Otegui-Gaztañaga SL, . enpresari eta Kontuhartzailatza Departamentuari

4. 35/2018 ETA 36/2018 FAKTURA-ZERRENDAK.

Kontuhartzailetak **35/2018** faktura-zerrenda aurkeztu du, **47.293,03€**-koa.

Hortaz, zerrenda aztertutik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,



TOLOSAKO
UDALA

ERABAKI DU

LEHENA.-35 /2018 faktura-zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

Kontuhartzaitzak **36/2018** faktura-zerrenda aurkeztu du, **61.894,53€**-koa.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.-36 /2018 faktura-zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 8:45ean.

ALKATEA

IDAZKARIA